

EUSKO KANP



2. BEZERO - SEGMENTUAK

Gure zerbitzuak, bi bezerori zuzenduta daude: Udan, 7-16 urte bitarteko umeei eta urtean zehar, 18 urte baino gehiago dazkaten pertsoneri. Udan umeak gure udalekura etortzen badira ere, zerbitzua ordainduko duena, gurasoa izango da, beraz, gure bezeroak, beti, gurasoak izango dira, ondorioz, gure publizitatea gurasoei zuzenduta egongo da batik bat. Umeen interesa pizteko publizitatearen zati bat ere haiei zuzenduta egongo da.

Bezeroen arabera, gure zerbitzuak mugatuko ditugu. Gurasoen kasuan, ez da egongo inolako limitaziorik, hau da, guk eskaintzen ditugun ikastaro guztietara joateko aukera dute. Aldiz, umeen kasuan, ikastaro batzuk mugatu behar ditugu bere adinaren arabera. Adibidez, sukaldaritzako klaseetan, 12 urtetik gorako umeek bakarrik parte hartu dezakete, azkenean, labanekin eta suarekin lan egingo dutenez arriskutsua izan daiteke. Baina gainerako ikastaro guztietan parte hartzeko aukera izango dute.

Gure udalekuan, plazen %5a, desgaitasunak dituzten pertsonentzat gordeta egongo da. Gure helburuetako bat, gizarte berdintasuna bultzatzea baita, horregatik, gure udalekuan, berdindio, pertsona batek desgaitasunak dituen, zein erlijiotan sinisten duen, LGBTBIQ+ edo beste kolektiboen parte den.



Udalekura etortzen direnei, euskal kultura eta munduan barrena dauden beste kulturak ezagutzeko grina edo jakin-mina pizten saiatuko gara. Kultura, herri edo pertsona kopuru batzuen identitatea da eta gure ustez oso polita eta interesgarria da, munduan sortu diren kultura ezberdinak ezagutzea. Horregatik gure udalekuan, Euskal kultura eta beste asko ezagutuko dituzte. Edozein bazterreko pertsonak ongietorriak baitira.

